



ABALTZISKETA

## **2016EKO UZTAILAREN 12KO OHIKO BILKURAKO AKTA**

Organoa: Abaltzisketako Osoko Bilkura.

Lekua: Abaltzisketan

Ordua: 19: 00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bildutakoak: Jon Zubizarreta. Alkatea

Aritz Garmendia. Zinegotzia

Felix Maioz. Zinegotzia

Adur Gorostidi. Zinegotzia

Jose Maria Egunez. Zinegotzia

Mikel Senperena . Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

### **GAI ZERRENDA**

1. 2016ko ekainaren 14ko akta onartzea hala balegokio.
2. Sasiain Barreneko eraberritze proiektua eta beste lanen legeztatze proiektuaren inguruan dagokiona erabakitzea.
3. Kepa Garmendia Otaegiren bizigarritasun eta lehen erabilera baimena onartzea.
4. Lurralde Oreka Departamentuak luzatutako laguntzaren barruan aurkeztu beharreko proiektuari onarpena ematea.
5. 2016-15tik 48 bitarte emandako ebazpenen berri ematea.
6. Galderak eta eskaerak.



ABALTZISKETA

## **1- 2016KO EKAINAREN 14KO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO.**

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2016-04-26ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurtzeari ekiten zaio. Bertan, hitzez hitz irakurtzen ez bada ere, izenburuak komentatu eta laburtzen dira. Mahaikideen aldetik aurkakorik esan ez denez, dagoen bezala onartutzat eman da.

## **2- SASIAIN BARRENEKO ERABERRITZE PROIEKTUA ETA BESTE LANEN LEGEZTATZE PROIEKTUAREN INGURUAN DAGOKIONA ERABAKITZEA.**

Sasiain barrena baserria erori zen, eta berau berreraikitze helburuarekin, proiektua aurkeztu zen 2015eko maiatzean, arkitekto teknikoak sinatua eta eraberritze exekuzio proiektua izena jarrita.

Udal honetako Idazkaritzatik, berreraikitze lana dela eta arkitektoak sinatua eta bere elkargoak gainbegiraturako proiektua izan behar duela adierazi zuen. Horrela, 2015eko abuztuaren 3an, arkitektoak sinatuta eta bere elkargoak gainbegiraturako berreraikitze sarrera eman zitzaion.

### PROZEDURA

Eusko Legebiltzarreko, ekainaren 30eko 2/2006 legearen 30.4.a atalak dioena jarraituz, egitasmoa jendaurrean jarri zen 2015eko irailaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman zen.

Jendaurreko epealdia, 2015eko urriaren 6an amaitu zen eta denboraldi horretan inolako alegaziorik ez zen tarteratu.

### AURREKARIAK

**Bat** .-2010-10-14eko Osoko Bilkuran, lehen txabola duen azalera errespetatuz, eraberritzeko baimena onartu zen, hau da 45 m2.



## ABALTZISKETA

**Bi.-** Alkateak, 2010-11-03ko dataekin luzatu zuen ebazpenean, 3 metro herri bidetik aldentzea onartu eta 45 m2 azalera mantentzea berretsi zuen.

**Hiru .-** Juan Joxe Arregik sinatuta, 2012ko irailaren 7an agiri bat aurkezten du, Udalak baimendutako 45 m2 baino gehiago eraikia izan dela eta horren arrazoiak ere ematen ditu, eta honela errekonozitzen du:

“Arrazoi du udalak, proiektuak eta lanek bat egiten ez dutela dioenean. Baserriaren egoera eta edozein momentutan eror zitekeela ikusita, obrak denbora laburrean egin behar ziren eta erabakiak hartu ere bai, aurreko lerroetan deskribatzen diren moduan egin zirelarik.

Azalpen hauen ondoren, Abaltzisketako Udalak honen inguruko neurri zuzentzaileak ezartzea beharrezko ikusten badu onartuko ditugula adieraztea da idatzi honen xedea”.

**Lau.-** Behin baino gehiagotan, nahiz idatziz, nahiz ahoz esan izan da, egindako eraberritze lanak Udalak emandako lizentzira egokitze.

**Bost.-** Orain, Sasiain barrena baserria erori dela eta inolako aztarnarik ez dagoenez eta berriro eraikitze proiektua prestatzen ari direla kontutan hartuta,

2015-07-16ko Osoko Bilkuran ERABAKI ZEN :

**Bat.-** Sasiain barrenaren jabetza duenak, baserriaren berreraikitze eta txabolaren arau haustearen arduradunak direnez, eta 2011 urtetik arau hauste honekin gaudela ikusita, honako baldintzak eskatzea:

- Sasiain barrena baserriaren berreraikitze proiektua aurkezten denean, berreraikitze lizentzia eskuratzen duenetik kontatuta, gehienez, hiru urte igaro ondoren, txabola, Udalak emandako neurrietara egokituko duela aitortzea, eta proiektuan aitortzea sartzea.



## ABALTZISKETA

- Kontutan hartuaz, arau hauste honek lau urte daramatzala eta Udalak, errekerimenduak egin arren oraindik ez duela zigor espediente eta botatze espedienterik hasi, eta ondorioz inolako isunik ezarri, goian aipatzen den baldintza, gehienez hiru urteko epean botako dela ziurtatzeko, 8.000 euroko abala edo fiantza udal honetan uztea. Epea amaitu eta txabolaren egokitzapena ongi egiten bada, Udalak osotasunean fiantza edo abala itzuliko du.

## ERREKERIMENDUA

Sasiain barrena proiektuari onarpena eman aurretik, aipatutako lursailean, herri bidearen mugan orma bat eta eraikin bat egin zirela ikusi zen, Udalak egindako bisitan.

Ondoren, J.J.Arregirekin bilera bat egin zen bi puntu hauek argitzeko eskatuaz:

- Herri bidearen erabilera argitzeko.
- Eta, egindako bi lanen orma eta eraikinaren proiektua argitzeko.

Herri bidearen erabilerari buruz, orma egiteko ormigoia eraman zuela eta guztira 34 bidai egin zituela.

Idatzi baten bidez, ormaren berri ere agertu du, baina proiektua egitea eskatu zen berriro.

2016ko ekainaren 13an Sasiain Barrena eraberritze proiektuari eranskin bat eginez, arkitekto elkargoak sinatutako proiektua bat aurkezten du egindako eraikina eta ormari buruz.

Eraikinaren berri ematen duenean, lurrazpian geratuko dela esaten da eta 57,72 m<sup>2</sup>etako azalera duela oin batean. Ormigoizko zutabeak eta egurrezko bigak izango dituela eta teilatu bezala ormigoizko losa bat. Eta guztia



## ABALTZISKETA

lurrarekin estalia, sarrera ezik. Eraikinaren erabilera, lanetarako materiala eta tresneria gordetzea da.

Ormari buruz, herri bideko lurak ez erortzeko euste orma bat egingo dela bidearen kotaraino. Kalkuloak ondo eginak daudela eta ormaren barruan urak biltzeko ubideak egingo direla.

Proiektua arkitektoak sinatua eta elkargoak gainbegiratua dago baina esan behar da, obra, baimena eman aurretik exekutatua dagoela. Beraz, baimenik gabe egindako lana da eta ondorioz legezatzeko beharra du. Lanaren aurrekontua 43.798,68 eurotako dela ere esaten da.

## SASIAIN BARRENA ERABERRITZE PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK

Exekuzio proiektuan jasotzen diren xehetasunak, ondorengo adierazten da:

Sasiain barrena baserria, 2014ko urriaren 31an, kargaren ormak eta teilatuaren zatia erori egin zirela, zati bat airean geratuz eta arriskua sortuaz.

Horregatik, beste erortze bat gertatu aurretik eta hirugarren bati kalteak saihesteko asmoz, berau botatzeari ekin zitzaiola. (egoera adierazten duen argazkiak jasotzen dira proiektuan).

Sasiain Barrenaren azalera eraikia, 850 m<sup>2</sup> direla esaten da.

Berreraikitze proiektuan esaten da:

- Lehen zuen bolumen konfigurazioa mantentzen duela.
- Herri bide aldetik zegoen fatxada atzera eramaten dela.
- Eraikinaren leiho eta ateak aldatzen direla, barneko antolamenduaren arabera.



## ABALTZISKETA

- Bizitza izaera mantentzen zaiola.
- Berreraikitze azalera 20,40 x 15,40 metro, eta hiru oina izango dituela. Eta 709,73 m<sup>2</sup> azalera erabilgarria.

Egin behar den lanaren aurrekontua: 156.729,26 €

Ekainaren 30eko 2/2006 legearen 30.4.a atalak dioena jarraituaz, jendaurrean jarri zen eta inolako alegaziorik ez da tartetu izan.

### Ondorioa:

1. Sasain barrena eraberritze lanaren baimena emateko 2015-07-16ko Osoko Bilkuran hartutako erabakia kontutan hartu behar da:

**Bat.-** Sasiain barrenaren jabetza duenak, baserriaren berreraikitze eta txabolaren arau haustearen arduradunak direnez, eta 2011 urtetik arau hauste honekin gaudela ikusita, honako baldintzak eskatzea:

- Sasiain barrena baserriaren berreraikitze proiektua aurkezten denean, berreraikitze lizentzia eskuratzen duenetik kontatuta, gehienez, hiru urte igaro ondoren, txabola, Udalak emandako neurrietara egokituko duela aitortpena egitea, eta proiektuan aitortpena sartzea.
  - Kontutan hartuaz, arau hauste honek lau urte daramatzala eta Udalak, errekerimenduak egin arren oraindik ez duela zigor espediente eta botatze espedienterik hasi, eta ondorioz inolako isunik ezarri, goian aipatzen den baldintza, gehienez hiru urteko epean botako dela ziurtatzeko, 8.000 euroko abala edo fiantza udal honetan uztea. Epea amaitu eta txabolaren egokitzapena ongi egiten bada, Udalak osotasunean fiantza edo abala itzuliko du.
2. Sasiain Barrena baserriak, katastroko argazki eta informazioaren arabera, bere azalera eraikia 850 m<sup>2</sup> etakoa zela zalantza sortzen da. Bererreraikitze proiektuetan, lehengo azalera berdina bererreraikitzea da



## ABALTZISKETA

helburua, eta hori adierazteko, eskritura bidez edo erori aurretik egindako neurketak dira balio dutenak.

3. Eraikuntza eta obra zerga likidatzeko proiektuan aurkeztutako aurrekontuaren arabera, indarrean dauden udal Agintarauen arabera, %5a udalari ordaintzea, hau da, 7.836,46 €. Kasu honetan esan daiteke, lan horiek burutzeko aurkeztu den aurrekontua ez dela errealia, halere, dagoen bezala ontzat emango da.
4. Obra amaitzen denean lehen okupazio baimena eskatu eta obra berriaren eskritura egitea, ondoren, Ondasun Higiezien erroldan alta emateko.

## BAIMENIK GABE EGINDAKO HORMA ETA LURRAZPIKO ERAIKINA

Indarrean dagoen “**EDL 2006/98285** Ley País Vasco 2/2006 de 30 junio 2006” legeak 225 artikuluan arau hausteak era honetara banatzen ditu:

Arau hauste **larriak**: g) Lurrak mugitzea eta lurpeko erauzketak egitea lizentziarik, urbanizazio-proiekturik edo, hala badagokio, eskumena duen administrazioaren baimenik izan gabe.

Arau-hauste **arinak** izango dira urbanizazio-proiekturik, lizentziarik, baimenik edo hirigintza-txostenik gabe, edo horietan ezarritakoarekin bat etorri gabe, egiten diren ekintza eta jardueretatik, goian aipatu ez direnak.

226 artikulua, arau haustearen isunak era honetara arautzen ditu:

- a) Arau-hauste arinak. Isuna, 500 eurotik 5.000 eurora.
- b) Arau-hauste larriak. Isuna, 5.001 eurotik 50.000 eurora.

Euste orma eta lurrazpiko eraikina baimenik eskatu gabe burutu dira, eta Udalaren errekerimendu ondoren, proiektua aurkeztu da.

Plan Orokorrak, euste orma horiek lur ez urbanizagarrian saihestea gomendatzen du. Eta kasu honetan, dagoeneko saihestu ezina dagoenez, inguruneari egiten dion inpaktua gutxitzeko neurri zehatzak hartu behar dira.



## ABALTZISKETA

Lurrazpiko eraikinaren azalera, 57,72 m<sup>2</sup> etakoa da, zutabe sendo batzuen bidez, egurrezko biga eta teilatua ormigoizkoa eta laua eta horregatik, erdi lurrazpian geratzen da.

Euste orma eta lurrazpiko eraikinaren aurrekontua 43.796,63 eurotakoa da.

### Ondorioa:

1. Lehen baserriak zuen azalera eraikia 850 m<sup>2</sup> eraikia zuela eta orain 709,73 m<sup>2</sup> etakoa dela esaten da proiektuan, baina azken datu hau, ez da azalera eraikia, erabilgarria baizik. Beraz, lehen baserriak zuen azalera eraikia jakitea komenigarria litzateke, azalera berdina eta horrekin bolumen berdina bererraitzeko. Proiektuan esaten da, lurrazpian egin den eraikia, lehen baserriak zuen azalera baino txikiagoa eraikiko denez, berau osatzeko lurrazpiko eraiki batzen dela. Lehen esan bezala, baserrian zuen azalera eraikia eta bolumena jakitea komenigarria da aurrera begira gaizki ulerturik ez izateko. Horregatik, lurrazpian egin den eraikina onargarria den jakitea ezinezkoa da. Plan Orokorrak, honelako eraikinak saihestea gomendatzen du, halere, kasu honetan, bertan dagoen jarduera kontutan hartuaz, bizilekutik kanpo izatea egokitzak jo daiteke, beti ere azaleraren gehikuntzarik ez badago. Horregatik, baserriaren azalera jakitea egokia da, ahal izango balitz.
2. Ormaren kasuan, honelako mugimenduak eta ormak egitea ez da gomendatzen arauetan, eta dagoeneko egina dagoenez, orma horren inpaktua xamurtzeko neurriak hartu eta horiek Udalari lehenbait lehen jakinaraztea eskatzea.
3. Kasu honetan, inolako baimenik gabeko obrak burutu dira, eta halere aurkeztu den proiektuan, obrak egin gabe egongo balira bezala adierazi da, hau da obrak nola burutuko diren adieraziaz. Beraz, proiektuan jasotzen dena ez da zuzena. Obrak, proiektua aurkeztu aurretik exekutatuak zeuden inolako baimenik gabe.
4. Eta udalak, kasu honetan, Udalak egoki irizten duen isuna jarri dezake 50.000 euro bitarte, arau hauste larria delako.





## ABALTZISKETA

Guztiaren berri eta hausnarketak egin ostean **ERABAKI DA:**

**BAT.-** Sasiain Barrena bererraitzeko baimena onartzea, ondorengo baldintzarekin. Obrak hasi aurretik honako dokumentazioa aurkeztea:

- Sasain Barrena baserriak zuen azalera adierazten duen agiria aurkeztea.
- Sasiain Barrena baserriaren ondoko txabola bere neurrietara eramateko konpromezuaren seinale 8.000,00 eurotako fiantza udalari uztea, legeak ezartzen duen edozein modalitateetan.

**BI.-** Eraikuntza eta obra zerga likidatzeko proiektuan aurkeztutako aurrekontuaren arabera, indarrean dauden udal Agintarauen arabera, %5a Udalari ordaintzea, hau da 7.836,46 €.

**HIRU.-** 2016an ekainean aurkeztutako eranskinean jasotzen diren orma eta eraikina legeztatu aurretik, honako argibideak eskatzea:

- Baserriaren azalera , aurrez estatua , handikuntzarik badagoen ikusteko.
- Euste ormaren inguruan hartu behar diren neurri zuzentzaileak argitzea.

**LAU.-** Proiektuaren eranskinean jasotzen diren euste orma eta eraikina legeztatu ondoren, aurrekontuaren eraikuntza eta obra zergaren likidazioa luzatuko da. Eta baimenik gabeko obra burutu denez, dagokion isuna ezarriko da, eskatutako dokumentazioa aurkeztutakoan.

**BOST.-** Eskatzaileari erabakiaren berri ematea.



ABALTZISKETA

### **3- KEPA GARMENDIA OTAEGIREN BIZIGARRITASUN ETA LEHEN ERABILERA BAIMENA ONARTZEA.**

Kepa Garmendia Otaegik obra amaitu izanaren likidazioa, obra kalitatearen kontrola eta obra amaieraren egiaztatzea aurkeztu ditu, elkargo ofizialak gainbegiraketa egin ostean.

2015eko urtarrilaren 13an, bizitza habilitatzeko baimen eskaera luzatu eta onartu zitzaion. Lanaren exekuzioa, B.E.Z.a kanpo 36.753,67 eurotakoa da. Arkitektoak egiaztatu bezala, lanak gremioen bidez burutu dira eta likidazioa aurreikuspenaren barruan sartu da.

Kontutan hartuaz, obra eta eraikuntza zerga ordaindua duela.

Kontutan hartuaz, barneko obrak izan direla osotasunean.

Mahaikideek ERABAKI DUTE:

1. Kepa Garmendia Otaegiri bizigarritasun eta lehen okupazio baimena onartzea.
2. Ondasun Higiezinaren erroldan alta ematea.
3. Erabakiaren berri eskatzaileari jakinaraztea.

### **4- LURRALDE OREKA DEPARTAMENTUAK LUZATUTAKO LAGUNTZAREN BARRUAN AURKEZTU BEHARREKO PROIEKTUARI ONARPENA EMATEA.**

Aldundiak, Lurralde Oreka helburua aurrera eramate aldera interes lokaleko inbertsioen exekuzioa finantziatzeko diru-laguntzen deialdia argitaratu eman da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2016ko ekainaren 29an.



## ABALTZISKETA

Abaltzisketako Udalak, deialdia aztertu eta Abaltzisketako Udalak dituen beharrak baloratu ostean, ZERBITZUAK ESKAINTZEKO MAKINA ESKURATZEA da Udalaren helburua.

Proiektuaren xehetasunak argitzeko honako txostena idazten da:

### ZERBITZUAK ESKAINTZEKO MAKINA ESKURATZEA

#### HELBURUA:

1. Abaltzisketako Udalak, baserri eta etxeetara joaten diren bideen 14.585 metro linealak garbitzeko ardura du, eta eskuz egiteko denbora asko galtzen da, eta zerbitzua ez da egokia.
2. Honetaz gain, beste zenbait bide, asfaltatu gabe direnak, herri bideak dira, eta kasu gehienetan, basoa ateratzeko, traktoreekin zelaietara iristeko erabiltzen dira.
3. Inguruko udalerriek horrela eskatu ez gero, eta Abaltzisketako Udaleko lanak ondo antolatuak badaude, beste udalerriei ere erantzuteko asmoa dago.
4. Eta azkenik, herritarren, beren zelai bazter edo baso bazter garbitu ezina badute, zerbitzua eskaintzeko asmoa ere badago.

Guzti hau kontutan hartuaz, oinarrizko azpiegitura dela esan daiteke.

#### KUDEAKETA:

Makina honen erabilera egiteko, traktorea izatea ezinbestekoa da, eta horretarako deialdi ireki baten bidez, makinaren erabilera eta zerbitzua eskaintza egiteko prozesua abian jarri behar da.



## ABALTZISKETA

Lehiaketa arautuko duen baldintza plegua zehaztu gabe badago ere, bertan jasoko diren irizpideak argi daudela ikusten da. Beraz, honako irizpide hauek kontutan hartuko dira kudeaketa arautu eta esleitu ahal izateko:

- Derrigorrezko baldintza: makinak eskatzen duen traktorea jabetzan duenak deialdia parte hartu dezake.
- Baloratuko diren baldintzak:
  - Abaltzisketan erroldatua egotea.
  - Nekazaritza jarduera izatea. Era honetara, nekazaritza jardueraren lan osagarria izan daiteke.
  - Abaltzisketako herriaren ezagutza izatea.

### AURREKONTUA:

Udal honetan jaso diren aurrekontuak ikusita, DESBROZADORA BESOAREN aurrekontua, 25.585,00 eurotako da, B.E.Z.a kanpo.

Beraz, aurrekontua, B.E.Z.a eta guzti, HOGEITA HAMAR MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA LAUROGEITA BOST ZENTIMO (30.957,85€) dira.

### LANDA MAILA:

Abaltzisketako udalerrriak G2 maila du .

### Eta mahaikideek ERABAKI DUTE:

1. Proiektuari onarpena ematea, eta laguntza eskaera bideratzea.

## **5- 2016-45TIK 48 BITARTE EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.**



**ABALTZISKETA**

Udaleko alkateak, aurreko Bilkuraren ondoren emandako ebazpenak honako hauek izan dira :

- 2016/45: Plusvalia.
- 2016/46: Plusvalia.
- 2016/47: Ekaineko faktura.
- 2016/48: Ekaineko faktura.

## **6- GALDERAK ETA ESKAERAK.**

### **BAT .- ARALARKO TXABOLA ETA SALTARRIKO BIDEAK**

Alkateak jakinarazten du, Aldundiako Ingurumena Departamentuak, Aralarko txaboletara eta Saltarriko mangara iristeko mendi bideen antolakuntza eta egokitzapenaren proiektuak inguruan egin dezakeen eraginaren inguruan dagokiona agertzeko, jendaurrean dagoela jakitera eman duela agertu du.

Proiektua gainbegiratu eta zenbait udal-kideek aztertu dutela aditzera eman du. Eta ondorioz, ondorengo idatzia aurkeztu duela:

### **ARALARKO TXABOLETARA ETA SALTARRIKO MANGARAKO MENDI BIDEEN ANTOLAKUNTZA ETA EGOKITZAPEN PROIEKTUA**

Gipuzkoako Foru Aldundiako Ingurumeneko Zuzendari Nagusiak, Udal honi jakinarazi dio, Aralarko txaboletara eta Saltarriko mangarako mendi bideen antolakuntza eta egokitzapen proiektua dela eta, Ingurumen ebaluaketa sinplifikatuaren prozedura hasia dagoela eta hainbat dokumentu jaso dituela.

Dokumentu horiek aztertu eta abenduaren 9ko 21/2013 legearen 46 artikulua ezarritakoari jarraituz, hogeita hamar egunetako epean, dagokiona esateko, iritzia emateko, alegazioak tarteratzeko, e.a. igortzen duela Udal honetara.



**ABALTZISKETA**

Abaltzisketako Udalak, dokumentuak aztertu eta **proiektuaren nondik norakoak** hauek ikusi ditu:

Bat .- Proiektuaren helburua, Kobaurre, Orabiel, Goroskiutxu, Elutxeta azpikoa eta Elutxeta goikoa izenez ezagutzen diren txaboletara, Intzensaotik dagoen bidea egokitzea, eta Saltarri ganadu eremura sarbidea egitea, aurreikusten dela.

Bi.- Aipatutako eremu honetan, txaboletan bizi diren artzain eta abeltzainek 3890 ardi, 166 behor eta 22 behi dituztela larrean eta hauei urtero larre sasoiatarako beste 1000 behi gehitzen zaizkiela.

Hiru .- Lehen dagoen bidea egokitu, beste zati bat berria egin eta gaur egun sortu diren hainbat ibilbide ezabatu eta larre izateko berreskuratuko direla.

Lau.- Bidearen egokitzapena eta bidea egiteko, ingurumeneko legeak ezarritako zenbait neurri proiektuan jasota daudela ikusten da, maldak, harri lubetak, e.a. ahal den heinean saihestu eta ezinezkoa balitz ingurumenean eragin gutxiago izateko landatze lanak aurreikusiak daudela.

Bost.- Eta eraberritu nahi den bidea eta egin nahi den bide berri horien erabilera ere kontrolatua izango dela esaten da, gehienez, 4x4 eta remolkea erabili behar dira, artzainek edo abeltzainek egunerokotasunean bere jarduera bidez sortzen diren beharrei erantzuteko soilik.

Proiektuaren atal hauek ikusi eta ondorengo **hausnarketak kontutan hartuaz**:

Bat .- Lehen sektorearen desagertze arriskua alde batetik, eta gure inguruneak sektorearen beharra ere baduela bestetik, orain arte iraun duen bezala aurrera begira ere irauteko, bien artean oreka bat sortu behar da, eta denbora aurrera doan heinean, lehen sektoreari lanak errazteko moduak ikusi behar direla.



## ABALTZISKETA

Bi.- Lehen sektoreak aurrera jarraitzeko eta iraun ahal izateko, lan baldintzak eta bizi kalitatea zaindu eta hobetzea derrigorrezkoa da, beste sektore guztietan gertatzen baita eta hemen ere kontutan hartu beharko litzateke, oinarrizko zerbitzua eskaintzen duelako.

Hiru.- Lehen sektorearen bizitza kalitatea eta lan baldintzak hobetzeak, belaunaldi berriek ere sektore honetan lanean hasteko onurak eta aukerak ikustea eramaten gaitu. Eta gizarte honetaz ere jabetu egin behar du, lehen sektorea beharrezkoa dela, lehenengo gizarteari eskaintzen dio oinarrizko zerbitzuagatik eta bestetik gure ingurunean sortzen duen orekagatik.

Lau.- Lan baldintzak eta bizi kalitatea hobetzeko, eta bidez iraupena ziurtatzeko proiektu honetan aipatzen diren azpiegiturak burutzea egokiak ikusten dira erabilera zuzena eginez.

Bost.- Azpiegitura hauek, lehen sektorearen erabiltzaileentzat gain, beste beharretarako ere onurak direla ikusten da. Hain zuzen ere, erreskate kasuetarako, urjentzi kasuetarako, azpiegiturak izatea guztion onurarako da.

Sei.- Aipatutako eremua oso nekosoa eta gogorra egiten da zenbait kasuetan. Irisgarritasuna guztion eskubidea da eta beharrezkoa den kasuetan ibilgailuez iristeko aukera izan behar dute, adinekoek edo egunerokotasunean lanean jarduten duten abeltzainek, denboraldi baterako elbarritasuna egoeran suertatzen direnen kasuetarako e.a., irtenbidea izateko.

Guzti honengatik, Abaltzisketako Udalak, honako IRITZIA agertzen du, proiektu honen aurrean:

Aipatu diren proiektuaren nondik norakoak kontutan hartuta, honen inguruan egindako hausnarketaren ondorioak ikusita, proiektuari onarpena ematea eta aldeko iritzia agertzea.

Mahaikideek, proposamenaren berri jakin ostean, ERABAKI DUTE:

1. Alkatearen proposamena eta idatziari onarpena ematea.



ABALTZISKETA

## BI.- LANDABIDEEN EXEKUZIOA

Alkateak jakinarazten du, landabideen dirulaguntzak ebatzi direla eta Abaltzisketako udalaren kasuan, aurkeztutako aurrekontua 55.380,61 euro beza barne (45.769,10 +9.611,51) izanik, onartu duten laguntza %63koa dela, hau da 35.000 euro hain zuzen ere.

Eta, Alkatearen iritzian, lehen bait lehen OTEGI LIZASORI lana esleitzea proposatzen du.

Mahaikideen aldetik, Alkatearen proposamena ontzat eman dute.

Eta besterik ezean, bilera amaitutzat eman zen gaueko 21:20etan.

Alkatearen O.E.

Idazkariak